

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure sare-sozialak eta publizitatea (donazioak jasotzeko postuak) erabiliz, gure bezeroak mantentzen eta bezero berriak erakartzen ditugu. Horrela, harreman inpersonalak eta pertsonalak garatzen ditugu.

Batetik, harreman inpersonalen barruan, lehen aipatu dugun bezala, sare sozialak eta gure webgunea sartzen dira. Instagram, Twitter eta Facebook eta webgunearen bitartez, gure informazio, helburu eta eginbeharrekoa azaltzen eta adierazten ditugu.

Bestetik, harreman pertsonala izateko, donazioak jasotzeko postuak eta antolatutako torneo eta ekintzak erabiltzen ditugu. Lehenengoan, diru-, janari-, panpin-... donazioak jasotzen ditugu, guzti horiek zuzenean txakurtegietara bidaltzeko eta bigarrenetan, dirua lortzeaz aparte, kausa berdina babesteko, hau da, animalien ongizatea bermatzeko elkartasuna eta laguntza adierazi.

